



**19/2019 TXOSTENA, IRAILAREN 27KOA, KONTRATAZIO  
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN BATZORDE  
IRAUNKORRARENA.**

**AZTERGAIA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE  
PUBLIKOKO ERAKUNDEEK ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS,  
IZENPE, S.A.RI (AURRERANTZEAN, IZENPE) EGITEN  
DIZKIOTEN ENKARGUEN IZAPIDETZEAK EUSKAL  
AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAREN  
KONTRATAZIOAREN ARAUBIDEA EZARTZEN DUEN  
UZTAILAREN 27KO 116/2016 DEKRETUAREN 64.1  
ARTIKULUAN AURREIKUSITAKO BAIMENA BEHAR DUEN  
ALA EZ (AURRERANTZEAN, LEGE-BAIMENA).**

---

## **I.- AURREKARIAK.**

2019ko irailaren 11n, kontsulta egin zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Zerbitzu zuzendariak eskatuta, jakiteko ea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek IZENPE enpresari egiten dizkioten enkarguen izapidetzeak lege-baimena behar duen edo ez.

Espedientea Tramitagune bidez izapidetu da, alegia, prozedurak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren bidez (erreferentzia: CCSS\_CNS\_3116/19\_02).

## **II.- ESKUMENA.**

**I.** Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.c) artikulua arabera, aholkularitza-eginkizuna betetzen duenean, besteak beste honako hau egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari: *«Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek kontratazio publikoaren alorrean irizpena eskatzen dioten gaiei buruz informatzea; irizpen-eskaera hori kontratazioa kudeatzeko mandatua duten Eusko Jaurlaritzako zuzendariak edo sektore publikoko gainerako erakundeetako legezko ordezkariak egin behar dute, idatziz».*

**II.-** Horrenbestez, egia da gaia bera ez dela bete-betean kontratazio publikoaren arlokoa, baina, Eusko Jaurlaritzako sail bateko kontratazio-prozedura batean sortutako zalantza bat denez, eta sail horretako kontratazioaren ardura duen zuzendariak bidali duenez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua c) letraren barnean kokatzen da zalantza hau.

## **III.- GOGOETA JURIDIKOAK.**

**Lehenengoa.-** Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32.2.d) 1 artikuluan eskatutakoa betetzeko (lege horren bidez iraultzen dira Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak), Eusko Jaurlaritzak, 2018ko irailaren 4an egindako bilkuran, honako akordio hau hartu zuen: berariaz baimentzea, ados baitago, aitor dadin IZENPE SA sozietate publikoa Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen berezko bitarteko pertsonifikatua dela, betiere kontratazio publikoaren araudiak horretarako ezartzen dizkion baldintza guztiak betetzen baditu.

**Bigarrena.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Sailkapen Batzordearen 2018ko azaroaren 9ko bileran hartutako akordioaren arabera, IZENPE SAK zerbitzuen enpresa kontratistaren sailkapena lortu zuen V. taldeko 05 azpitaldeko 5. kategorian.

**Hirugarrena.-** SPKLren 32.2.d) artikuluan ezarritako baldintzak bete ondoren, IZENPE, S.A. sozietate publikoak bere estatutu sozialak egokitu egin zituen. Hona hemen estatutu horien testu bategina, 1. artikuluan:

*"Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios Izenpe, S.A." du izena sozietateak, eta merkataritza arlokoa eta anonimoa da.*

*"Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios IZENPE, S.A." erakunde hauen bitarteko propio pertsonifikatutzat hartuko da: Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte-Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A. (EJIE); Lantik, S.A.; Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte - Sociedad Foral de Servicios Informáticos S.A. (IZFE); eta Arabako Kalkulu Gunea, S.A. Era berean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren bitarteko propio pertsonifikatua da, bai eta haien mendeko gainerako erakunde publikoena ere.*

*"Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios IZENPE, S.A." beren bitarteko propietzat duten entitateek lanak, zerbitzuak eta beren helburu sozialaren jardueretako bat xede duten edozein jarduketa eta enkargu agindu ahal izango dizkiote, estatutu sozialen 4. artikulua 1. paragrafoan identifikatuta daudenak [...]"*

**Laugarrena.-** Hau xedatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 64. artikuluan:

*«1.-Enkargua agintzen duen erakundeak espediente bat egin behar du, eta bertan erantsiko ditu izapide teknikoak, juridikoak, aurrekontuei buruzkoak, kontrolekoak eta gastua onartzeari buruzkoak, administrazio-kontratueterako xedatutakoen antzekoak.*

*Bitarteko propioa edo zerbitzu teknikoa zein saili dagoen atxikia, haren baimena erantsiko zaio espedienteari, salbu eta sail horrek baimen orokorra emana badu. Baimen orokor hori Kontratazio Publikoa Euskadin plataforman argitaratuko da. Nolanahi ere, arrazoitu egin behar da zergatik ukatu den baimena, eta arrazoia oinarria izango da bitarteko propioaren bidez prestazioa materialki gauzatu ezin izatea, beste enkargu batzuk*

*ezinbestez lehenestea edo agindutako jarduera bitarteko propioaren jarduera-eremuko ez izatea.*

*2.-Espedientearen tramite guztiak egin ondoren, enkargua jakinaraziko da, eta jakinarazpen horrek berekin ekarriko du prestazioari ekiteko agindua.»*

**Bosgarrena.-** Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Zerbitzu zuzendariak egindako kontsultan adierazitakoaren arabera, sail horri atxikitako sozietate publiko, Itelazpi SA eta Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte SAekin bezala jokatu da (EJIE). Hau da, sail horretako Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzak Zerbitzu Zuzendaritzari eskatu dio sailaren baimena izapidetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek eta sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeek baimen hori izan dezaten IZENPE SArri ematen dizkioten enkarguen administrazio-izapideetan, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 64.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Eskaera hori aztertu ondoren, aipatutako Zerbitzu Zuzendaritzan zalantza sortu da ea IZENPE SArren kasuan Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari dagokion baimen hori ematea; izan ere, aipatutako beste bi sozietate publikoekin gertatzen ez den bezala, Izenpe SA ez dago Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikita (apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 2.3 artikulua, sail horren egitura organikoa ezartzen duena), ez eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko beste ezein saili ere.

Kontsultan gaineratzen da -eta hau ere bat dator azalpen horrekin- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ez duela partaidetzarik Izenpe, S.A.ren kapital sozialean, eta foru-sozietate publiko hauek direla haren bazkideak, EJIEz gainera: Lantik, S.A., Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte SA (IZFE, S.A.) eta Centro de Cálculo de Álava, S.A. (CCASA).

Kontsultan aurreikusten denez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 64.1 artikulua hitzez hitz interpretatuta, ondorioztatzen da ez dagokiola Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari, ez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra osatzen duten gainerako sailei, baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeek IZENPE SArri enkarguak agindu diezazkioten.

Planteatu da orobat ea Izenpe S.A.ren kapital sozialaren titulartasuna duten foru-sozietate publikoek eman beharko luketen baimena, baina erantzuna ezezkoa da, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, foru-sozietate publikoak ez daudelako haren aplikazio-eremu subjektiboan sartuta. Ikusi egin behar, gero, foru-arauetan zer jartzen duen gai horri buruz, baina kontu hori Aholku Batzorde honen eskumenetatik kanpo dago.

## **AKORDIOA**

Jakinarazi behar da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek IZENPE, S.A.ri egiten dizkioten enkarguen izapidetzean ez dela beharrezkoa Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 64.1 artikuluan aurreikusitako baimena.